

KOADRILEN FROGEN OINARRIAK 2012

1. SAN JUAN 2012 JAIETAKO JAITSIERA TXAPELKETA

1- Nahi beste koadrilak parte hartu ahal izango du, lehiaketan inskribatuz gero. Ekainaren 21ean izango da, pregoiaren ondoren.

2 – Jaitsieraren balorazioan honakoa aintzat hartuko da:

- Gaiaren originaltasuna.
- Jaitsiera animatzea, koreografia...

3 – Epaimahaia antolakuntzakoek osatuko dute.

4 – Epaimahaiak publiko egingo du erabakia ekainaren 24an, 21:00etan, Udaletxeko plazan edo Boulevarden.

5 – Sariak hauek izango dira:

HELDUAK		TXIKIAK	
1. saria	Garaikurra	1. saria	Garaikurra
2. saria	Garaikurra	2. saria	Garaikurra
3. saria	Garaikurra	3. saria	Garaikurra

6 – Epaimahaiaren erabakia apelaezina da. Epaimahaiak oinarri hautetatik eratorritako zalantza, ezusteko edo interpretazioen gaineko argibideak eman ditzake, baina bere irizpidea gailenduko da beti.

7 – Lehiaketan parte hartzeak oinarriak bere osotasunean onartzea dakar.

8 – SAN JUAN 2012 JAIETAKO JAITSIERA TXAPELKETA parte hartu nahi duten koadrilek ekainaren 15a baino lehen inskribatu beharko dute, **ATERPE LEIOA GAZTEGUNEAN**

OHARRA: koadrila guztiek hasi beharko dute jaitsiera, jaitsieraren beraren leloa eta koadrilaren izena daraman pankarta batekin. Ez da inskripziorik onartuko aipatu egun eta orduetatik kanpo. Inskribatzen ez diren taldeek ez dute lehiaketan parte hartuko, baina jaitsieran parte har dezakete antolakuntzaren irteerarako ordena errespetatuz.

1. SAN JUAN 2012 JAIETAKO JAITSIERAREN KARROZA TXAPELKETA

1- Nahi beste koadrilak parte hartu ahal izango du, lehiaketan inskribatuz gero. Ekainaren 21ean izango da, pregoiaren ondoren.

2 - Karrozaren balorazioan honakoa aintzat hartuko da::

- Gaiaren originaltasuna.
- Dekorazioa eta girotze orokorra (koloreak, argiak, soinua...)

3 - Epaimahaia antolakuntzakoek osatuko dute.

4 - Epaimahaiak publiko egingo du erabakia ekainaren 24an, 21:00etan, Udaletxeko plazan edo Boulevarden.

5 - Sariak hauek izango dira:

HELDUEN KARROZAK		TXIKIEN KARROZAK	
4. saria	Garaikurra	1. saria	Garaikurra
5. saria	Garaikurra	2. saria	Garaikurra
6. saria	Garaikurra	3. saria	Garaikurra

6 - Epaimahaiaren erabakia apelaezina da. Epaimahaiak oinarri hautetatik eratorritako zalantza, ezusteko edo interpretazioen gaineko argibideak eman ditzake, baina bere irizpidea gailenduko da beti.

7 – Lehiaketan parte hartzeak oinarriak bere osotasunean onartzea dakar.

8 - SAN JUAN 2012 JAIETAKO JAITSIERAREN KARROZA TXAPELKETA parte hartu nahi duten koadrilek ekainaren 15a baino lehen inskribatu beharko dute, **ATERPE LEIOA GAZTEGUNEAN**

KOADRILEN FROGEN OINARRIAK 2012

2. HELDUENTZAKO PLAY-BACK TXAPELKETAREN OINARRIAK

- 1.- Txapelketa Boulevarden izango da, ekainaren 22an, ostirala, 23:00etan.
- 2.- Partaideek 22:30 eta 23:00 bitartean izena eman beharko dute, eta antolatzaileei CD bat eraman erabiliko duten musikarekin.
- 3.- Koadrilek play back bana egin ahal izango dute bakarrik, eta 3 minututik gorakoa ez izatea gomendatzen dugu.
- 4.- Play Backa amaitu bezain laster, koadrilako batek CDa hartu beharko du.
- 5.- Epaimahaian koadrila bakoitzeko kide banaz osatuta egongo da.
- 6.- "Play Back" koreografia duen abestia kantatzea da, ez bakarrik dantzatzea, eta artistaren jantziak, karakterizazioa eta mugimenduak imitatzea.
- 7.- 1etik 10era puntuatuko da bi bozketatan, bat kategoria bakoitzeko. Epaimahaikideek ezin izango diote bere koadrilari bozka eman.
- 8.- Epaimahaiak bi kategoria baloratuko ditu. Jantziak (kreatibitatea), originaltasuna (errealismoa) eta dibertigarritasuna baloratuko dira. Berdinketarik balego, puntuazio maximorik gehien duen taldeak irabaziko luke.

1. Play-Back barregarriena.

2. Play-Back errealistena

Kategoria bakoitzeko sariak:

HELDUAK

1. saria Garaikurra
2. saria Garaikurra
3. saria Garaikurra

2. UMEENTZAKO PLAY-BACK TXAPELKETAREN OINARRIAK

- 1.- Txapelketa Errekalde plazan izango da, ekainaren 22an, ostirala, 21:30ean.
- 2.- Partaideek 21:00 eta 21:30 bitartean izena eman beharko dute, eta antolatzaileei CD bat eraman erabiliko duten musikarekin
- 3.- Koadrilek play back bana egin ahal izango dute bakarrik, eta 3 edo 3,5 minututik gorakoa ez izatea gomendatzen dugu.
- 4.- Play Backa amaitu bezain laster, koadrilako batek CDa hartu beharko du
- 5.- Epaimahaian koadrila bakoitzeko kide banaz osatuta egongo da.
- 6.- "Play Back" koreografia duen abestia kantatzea da, ez bakarrik dantzatzea, eta artistaren jantziak, karakterizazioa eta mugimenduak imitatzea.
- 7.- 1etik 10era puntuatuko da bi bozketatan, bat kategoria bakoitzeko. Epaimahaikideek ezin izango diote bere koadrilari bozka eman.
- 8.- Epaimahaiak bi kategoria baloratuko ditu. Jantziak (kreatibitatea), originaltasuna (errealismoa) eta dibertigarritasuna baloratuko dira. Berdinketarik balego, puntuazio maximorik gehien duen taldeak irabaziko luke.

1. Play-Back barregarriena.

2. Play-Back errealistena

Kategoria bakoitzeko sariak:

HELDUAK

1. saria Garaikurra
2. saria Garaikurra
3. saria Garaikurra

KOADRILEN FROGEN OINARRIAK 2012

4. UMEENTZAKO "AZERI EHIZA"

- 1.- Ehiza ekainaren 22an, ostirala, hasiko da, 18:00etan, Errekalde plazan. Umeen koadrilentzat bakarrik izango da, helduek ezin izango dute parte hartu.
- 2.- Koadrilek arduradun bana izendatuko dute lehen arrastoa hartzeko.
- 3.- Proban, antolakuntzak arrasto bat emango du, eta horrela, beste batera eraman behar gaitu. Horrela jarraitu behar da azeria aurkitu arte.
- 4.- Ehizan, koadrilako 10 pertsonak gehienez parte hartu ahal izango dute, eta koadrilaren bereizgarri bat eramango dute.
- 5.- Azeri ehiza Errekalde eta J.R. Aketxe plazetan bakarrik izango da.
- 6.- Ezin izango da motordun gailurik erabili proba honetan.
- 7.- Sei pista emango dira azeria aurkitzeko.
- 8.- Azeria antolakuntzako batek emango du arrasto guztiak itzuli ondoren.

TXIKIAK

1. saria Garaikurra

5. KOADRILEN ARTEKO EUSKAL KIROLAREN XII. OLINPIADAK

- 1.- Ekainaren 23an, larunbata, 11:00etatik aurrera, Txomin Arestiko patioan.
- 2.- Koadrilek talde bana aurkeztu ahal izango dute: 4 taldekide gehi ordezeko bat.
- 3.- Taldekide bakoitzak ezin izango du kirol baten baino gehiagotan parte hartu.
- 4.- KATEGORIAK: TXIKIEN koadrilak HELDUEN KOADRILAK

5.- TXIKIEN KOADRILENTZAKO PROBAK

- Txapela jaurtiketa
- Txingak. Gehienezko denbora 1 min.
- Zaku jasotzea Gehienezko denbora 1 min.
- Artaburu bilketa

.- PRUEBAS CUADRILLAS ADULTOS

- Txapela jaurtiketa
- Txingak. Gehienezko denbora 1 min.
- Zaku jasotzea Gehienezko denbora 1 min.
- Artaburu bilketa

- 6.- Tresnek pisu berbera izango dute koadrila guztientzat.
- 7.- Sarietarako sailkapena 3 modalitateen denbora gehituta egingo da (txapela jaurtiketak ez du sailkapen orokorrerako kontatzen)
- 8.- Epailleak koadriletakoak ez diren pertsonak izango dira.
- 9.- Lau koadrila aldi berean egongo dira probak egiten.

SARIAK	HELDUAK	TXIKIAK
Txingak.	Garaikurra	Garaikurra
Zaku jasotzea	Ikatz zakua	Garaikurra
Artaburu bilketa	Garaikurra	Garaikurra
Txapela jaurtiketa	Txapela	Txapela

HELDUAK	
1. saria	Garaikurra
2. saria	Garaikurra
3. saria	Garaikurra

TXIKIAK	
1. saria	Garaikurra
2. saria	Garaikurra
3. saria	Garaikurra

KOADRILEN FROGEN OINARRIAK 2012

6. ERLOJUOPEKO IGOERA. HELDUAK / TXIKIAK

- 1.- Ekainaren 24an, igandea, izango da. Boulevarden, 16:30ean.
- 2.- Koadrila bakoitzetik pertsona bakarrak parte hartu ahal izango du, baina ezin izango dira diziplina honetan federatuta egon.
- 3.- Derrigorrezkoa da kaskoa erabiltzea kategoria guztietan.
- 4.- Denboraren araberako sailkapena
 - 1. saria Maillota
 - 2. saria Maillota
 - 3. saria Maillota
- 5.- Originaltasunaren sariak
 - 1. saria Garaikurra
 - 2. saria Garaikurra
 - 3. saria Garaikurra

7. UMEENTZAKO JANTZI MERKEAREN TXAPELKETA

- 1.- Aurkezten den jantziak koadrilako kideren batek eginda egon beharko du. Ezin da erosi, alokatu, utzita hartu, etab.
- 2.- Jantzia izan behar du, ez praka edo beste arroparen bat.
- 3.- Antolakuntzak honako materiala emango dio koadrila bakoitzari jantzia egiteko:
2 metro soka, 2 metro plastiko zuri, biribilki 1 zilar-paper, zelo-paper zabaleko biribilki 1, kolorezko 3 kartoï mehe, 3 biribilki pinotxo-paper.
- 4.- Partaide guztiak elkarrekin igoko dira, eta aurkezleak desfilatzeko ordena zehaztuko die. Ez da jantzien aurkezpenik izango.
- 5.- Jantzia egiteko zailtasuna eta originaltasuna baloratuko dira.
- 6.- Txapelketa ekainaren 22an izango da, 22:00etan, Errekalde plazan.
- 7.- Koadrilek jantzi bana aurkeztu ahal izango dute.
- 8.- Epaimahaia koadrila bakoitzeko kide batek osatuko du, eta jantziak 1etik 10era baloratuko dituzte (nork bere koadrilako jantzia bozkatu barik). Epaimahaikideen puntuaketak batuko dira.
- 11.- Hilaren 11n entregatuko da materiala.

TXIKIAK

1. saria Garaikurra
2. saria Garaikurra
3. saria Garaikurra

KOADRILEN FROGEN OINARRIAK 2012

8. ASKOTARIKO PROBAK.

Koadrilen arteko "zizare" txapelketa

1. Ekainaren 23an, larunbata, izango da, 18:00etatik aurrera, Txomin Arestiko patioan.
2. Taldeak 8 pertsonak osatuko dituzte.
3. Taldea ilaran jarriko da begiak estalita, azken taldekidea izan ezik, gidaria izango dena.
4. Gidariak zizarea eraman beharko du ibilbide jakin batetik.
5. ESKUINERA EGITEKO, zaplada eskuin sorbaldan. EZKERRERA EGITEKO, zaplada ezker sorbaldan. AURRERA EGITEKO, zaplada sorbalda bietan, aldi berean. GELDITZEKO, zaplada buruan.
6. Hiru epailek zainduko dute proba ondo exekutatzeko delak.
7. Seinaleak, hau da, sorbaldan ematen den zapladak jarraitua izan behar du, lehenak agindua jaso dezan une oro.
8. Lehiakideen arteko kontaktua ezin da eten, zizarea apurtzen bada, taldeak gelditu geratu beharko du partaide guztiak berriro kontaktuan egon arte.
9. Batzordeak nahi duen bezala alda dezake ibilbidea.
10. Ibilbidea behin baino gehiagotan marraztu zen, hiruzpalau koadrilek, aldi berean, egin ahal izateko.
11. Denborak balioko du, ibilbidea lehenago betetzen duenak irabaziko du proba.
12. Partaideren bat OSORIK ateratzen bada ibilbidearen lerroetatik, hasierara itzuli beharko du.
13. KOADRILA GUZTIEK amaitu behar dute ibilbidea.

TXIKIAK

1. saria Garaikurra

HELDUAK

1. saria Garaikurra

Koadrilen arteko taldekako zaku lasterketa

Ekainaren 23an izango da, larunbata, 18:00etatik aurrera, Txomin Arestiko patioan.

Zaku bakoitzean koadriletako hiruna kide sartuko dira.

HELDUAK

4. saria Garaikurra
5. saria Garaikurra
6. saria Garaikurra

TXIKIAK

1. saria Garaikurra
2. saria Garaikurra
3. saria Garaikurra

Koadrilen arteko "iraupen-eski" txapelketa

1. Ekainaren 23an, larunbata, izango da, 18:00etatik aurrera, Txomin Arestiko patioan.
2. Koadrilek seina partaide izango dituzte.
3. Taldeak oholen gainean igota egongo dira, talde bat ezkerrean, eta bestea eskuinean.
4. Hartu oholera lotuta dauden sokak bridak bailiran, eta denek batera ibili behar dute.
5. Oina oholetik ateratzen bada, ezin izango da aurrera egin.
6. Helmugara lehen heltzen den taldeak irabaziko du.
7. Lasterketa bakoitzean lau koadrilak parte hartuko dute.

HELDUAK

1. saria Garaikurra
2. saria Garaikurra
3. saria Garaikurra

TXIKIAK

1. saria Garaikurra
2. saria Garaikurra
3. saria Garaikurra

KOADRILEN FROGEN OINARRIAK 2012

9. KOADRILEN ARTEKO TXIKIENTZAKO SOKA-TIRA

- 1-. Koadrila bakoitzeko talde bakarrak parte hartu ahal izango du, 8 pertsonaz osatua. Horietatik, gutxienez hiru emakume egongo dira.
- 2-. Taldekako pisuak: - Txikien koadrila 350 kg.
- 3-. Sailkapen probak: kanporaketak tirada bikoitzean. Berdinketarik bada, hirugarren tirada bat egongo da.
- 4-. FINALAK: 4 talde pasatuko dira finalera eta probak ligatxo sistemaren bidezkoak izango dira (denak denen kontra).
- 5-. Proba ekainaren 24an izango da, 12:00etan, Txomin Arestiko patioan. Pizatzea ordu bete lehenago izango da. Izena emateko epea 11:30ean bukatuko da.
- 7-. Epaileak koadriletatik kanpoko pertsonak izango dira.
- 8.- Soka bat eta goma bat egongo dira proba egin ahal izateko.

TXIKIAK

- | | |
|----------|------------|
| 1. saria | Garaikurra |
| 2. saria | Garaikurra |
| 3. saria | Garaikurra |

10. JAITSIERA OSTEKO PROBAK

- Ekainaren 21ean izango da, osteguna, gutxi gora behera 22:00etan, Boulevarden.

Koadrilen arteko hot dog erlojupekoa

1. Koadrilek partaide bana izango dute
2. Txanda bakoitzean, bost pertsona lehiatuko dira, epaile banarekin. Epaileek pertsona bakoitzak jaten duen hot-dog kopurua idatzi beharko du. Koadrila bakoitza beste koadrila baten epaile izango da.
3. Partaide bakoitzak prestatutako bost hot-dog izango ditu platerean eta baso bat ur, nahi beste aldiz bete dezakeena. Mahaia eta aulkia ere izango dute.
4. Saltxitxa eta ogia oso-osorik jan behar dira. Eroskiko saltxitxa ertainak, gaztarekin, eta Eroskiko hot-dog ogia.
5. Koadrila bakoitzak bere hot-dogak prest eraman beharko ditu.
6. 5 minutuko gehienezko epea.
7. Bost minutuak amaituta ahoan zerbait badago, hot dog horrek ez du balioko.
8. Berdinketarik bada, berdindu duten partaide guztiek hot-dog bat jan beharko dute, eta gutxien tardatzen duenak irabaziko du.
9. Probarako dagoen espazioaren arabera, txanda bakoitzean, partaide gehiago egon litezke.

HELDUEN SARIA

- | | |
|----------|------------|
| 1. saria | Garaikurra |
|----------|------------|